

EUSKAL MEZA, 2023 ABENDUAK 24/DECEMBER 24, 2023
ABENDUKO IV-N IGANDEA/ADVENT IV SUNDAY (B)
MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS

HASIERAKO ABESTIA/ENTRANCE SONG

Zatoz Emanuel	Come Emmanuel
<p>Aspaldi gaude deika zerura: pekatu guzien damu gara. Betorkigu Mesias lurrera, Pakea denari zabaltzera.</p> <p>Alai zaitez, ta poztu Israel: Laster datorkizu Emanuel.</p> <p>Entzun gaitzazu Jainko maitea, Bidali laster zure Semea, Guztiontzat zeruratzaila, Betiko poza dagigun pakea.</p> <p>Badator Jauna, altza burua! Kantuz has bedi kantuz mundua, Izango bait dugu pekatua Betirako Jaunak zapaldua..</p>	<p>Since long we are calling the Heavens, We are sorry for all our sins, May the Messiah come to the earth, To bring peace to all.</p> <p>Be joyful and exult oh Israel! Emmanuel is soon to arrive.</p> <p>Listen to our prayer our loving God, Send us Your Son without delay. He will bring us all to Heaven, To the eternal joyful peace.</p> <p>The Lord is near, arise your heads, May the world break into songs, Because all our sins God will crush under his feet.</p>

HASIERAKO OHIKUNEAK-INTRODUCTORY RITES

<p>† Aitaren, eta +Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ☉ Amen. AGURRA † Jesukristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin. ☉ Eta zure espirituarekin.</p>	<p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit. ☉ Amen. Greeting † The grace of our Lord Jesus Christ, and the love of God, and the communion of the Holy Spirit be with you all. ☉ And with your spirit.</p>
--	--

DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE

<p>† Senide maiteok, aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitzen.</p> <p>† Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna. ☉ Erruki, Jauna.</p>	<p>† Brethren (brothers and sisters), let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries. † You raise the dead to life in the Spirit: Lord, have mercy. ☉ Lord, have mercy.</p>
--	--

<p>† Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki. ☉ Kristo, erruki.</p> <p>† Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna. ☉ Erruki, Jauna.</p> <p>† Erruki dakiguela Jainko guztiz ahaltsua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara. ☉ Amen.</p>	<p>† You bring pardon and peace to the sinner: Christ, have mercy. ☉ Christ, have mercy.</p> <p>† You bring light to those in darkness: Lord, have mercy. ☉ Lord, have mercy.</p> <p>† May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life. ☉ Amen.</p>
---	--

MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER

<p>† Egin dezagun otoitz Isuri ezazu, arren Jauna, gure bihotzetan zure grazia, Jesukristo zure Semearen Gizakundea, aingeruaren esanez, ezagutu dugunok, Haren nekaldi eta heriotzaren bitartez, aintzazko piztuerara iritxi gaitzela. Errege bizi bait da, Zurekin eta Espiritu Santuarekin gizaldi ta gizaldietan. ☉ Amen.</p>	<p>† Let us Pray Pour forth, we beseech you, O Lord, your grace into our hearts, that we, to whom the Incarnation of Christ your Son was made known by the message of an Angel, may by his Passion and Cross be brought to the glory of his Resurrection. Who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, one God, for ever and ever. ☉ Amen.</p>
---	--

HITZAREN LITURGIA-LITURGY OF THE WORD LEHENENGO IRAKURGAIA-FIRST READING Samuel/2Sm 7:1-5, 8b-12, 14a, 16

<p>Samuel Bigarren Liburutik</p> <p>1 David erregea bere etxean bizitzen jarri eta Jaunak inguruetako etsaiekiko lasaitasuna eman zionean, 2 esan zion erregeak Natan profetari:—Hara, zedrozko etxean bizi naiz ni; Jainkoaren kutxa, aldiz, oihal-etxolan dago. 3 Natanek erantzun zion erregeari:—Zoaz eta bete zeure asmoa, zeurekin baituzu Jauna. 4 Gau hartan, ordea, Jaunak hitz egin zion Natani, esanez: 5 «Zoaz eta esaiozu ene zerbitzari Davidi: Honela mintzo da Jauna: Etxea eraiki behar al didazu zuk, ni bertan bizi nadin? 8b Nik atera zintudan larreetatik, artaldean artetik, ene herri Israelen agintari izateko. 9 Zeurekin izan nauzu ibili zaren toki guztietan. Hondatu ditut aurrean jarri zaizkizun etsaiak oro. Lurreko handikiena bezain izen handia eman dizut. 10 Bizitokia emanen diot ene herri Israeli; hantxe errotu eta kokatuko dut. Aurrerantzean ez da</p>	<p>From the Second Book of Samuel</p> <p>When King David was settled in his palace, and the LORD had given him rest from his enemies on every side, he said to Nathan the prophet, "Here I am living in a house of cedar, while the ark of God dwells in a tent!" Nathan answered the king, "Go, do whatever you have in mind, for the LORD is with you." But that night the LORD spoke to Nathan and said: "Go, tell my servant David, "Thus says the LORD: Should you build me a house to dwell in?" "It was I who took you from the pasture and from the care of the flock to be commander of my people Israel. I have been with you wherever you went, and I have destroyed all your enemies before you. And I will make you famous like the great ones of the earth. I will fix a place for my people Israel; I will plant them so that they may dwell in their place without further disturbance. Neither shall the wicked continue to</p>
--	---

ikaratuko; gaizkile horiek ez dute gehiago zapalduko, antzina **11** ene herri Israeli buruzagiak eman nizkionean, egin zuten bezala. Lasaitasuna emanen dizut zeure etsai guztiekiko. Ondorengotza emanen dizula jakinarazten dizu Jaunak. **12** Zure egunak bete ondoren, zeure gurasoekin etzango zarenean, zure ondorengo bat ezarriko dut, zuregandik sortua, eta sendotu egingen dut beraren erregetza. **14a** Aita izango nau hark ni, eta seme izango dut nik hura. **16** Zure etxeak eta zure erregetzak betierean iraungo dute zure ondoren, eta zeure errege-aulkia sendoa izanen duzu beti».

□ **Jaunak esana!**

☉ Eskerrak zuri Jauna!

afflict them as they did of old, since the time I first appointed judges over my people Israel. I will give you rest from all your enemies. The LORD also reveals to you that he will establish a house for you. And when your time comes and you rest with your ancestors, I will raise up your heir after you, sprung from your loins, and I will make his kingdom firm. I will be a father to him, and he shall be a son to me. Your house and your kingdom shall endure forever before me; your throne shall stand firm forever."

□ **The Word of the Lord!**

☉ Thanks be to God!

ERANTZUN-SALMOA/RESPONSORIAL PSALM 89 (88):2-3, 4-5, 27, 29

R. Jauna, zure maitasun-egintzak beti ditut kantatuko!

Jaunarena da lurra eta bertan dagoena, mundua eta bertan bizi direnak; berak ezarri baitzuen sendo itsasoen gainean, lur azpiko ur-lasterren gainean. **R.**

Nor igo Jaunaren mendira?
Nor egon hark sagaraturiko tokian?
Eskuak errugabe eta bihotza garbi dituenak, gezurrezko jainkoetara jotzen ez duena. **R.**

Horrelakoa bedeinkatuko du Jaunak, justizia egingo dio Jainko salbatzaileak. Horiek dira haren bila saiatzen direnak, Jakobena Jainkoa aurkitu nahi dutenak. **R.**

R. For ever I will sing the goodness of the Lord.

The promises of the LORD I will sing forever; through all generations my mouth shall proclaim your faithfulness. For you have said, "My kindness is established forever"; in heaven you have confirmed your faithfulness. **R.**

"I have made a covenant with my chosen one, I have sworn to David my servant: Forever will I confirm your posterity and establish your throne for all generations." **R.**

"He shall say of me, 'You are my father, my God, the Rock, my savior.' Forever I will maintain my kindness toward him, and my covenant with him stands firm." **R.**

BIGAREN IRAKURGAIA-SECOND READING Erromatarrei/ Rom 16:25-27

Erromatarren Eskutizetik

Senideok:

25 Gorets dezagun Jainkoa! Berak fedean sendotu zaitzakete, nik hots egiten dudana berri onaren eta Jesu Kristori buruz ematen dudana mezuaren arabera. Mezu horren bidez, aspalditik ezkutuan zeukan misterioa agertu du Jainkoak. **26** Misterio hori orain

From the Letter to the Romans

Brothers and sisters:

To him who can strengthen you, according to my gospel and the proclamation of Jesus Christ, according to the revelation of the mystery kept secret for long ages but now manifested through the prophetic writings and, according to the command

azaldu da profeten idatziek dioten bezala, eta, Jainko betierekoak hala erabakirik, herri guztiei adierazi zaie, Jainkoari fedezko erantzuna eman diezaioten. **27** Jainko honi, jakintsu bakarra denari, aintza betiere Jesu Kristoren bitartez! Amen.

- ☐ **Jaunak esana!**
- ☉ Eskerrak zuri Jauna!

of the eternal God, made known to all nations to bring about the obedience of faith, to the only wise God, through Jesus Christ be glory forever and ever. Amen.

- ☐ **The Word of the Lord!**
- ☉ Thanks be to God!

ALELUIA-ALLELUIA

R. Aleluia, aleluia.

Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk diozun bezala.

R. Aleluia, aleluia.

R. Alleluia, alleluia.

Behold, I am the handmaid of the Lord. May it be done to me according to your word.

R. Alleluia, alleluia.

EBANJELIOA-GOSPEL

† **Jauna zuekin.**

☉ Eta zure espirituarekin.

† **Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik**

☉ Aintza Zuri, Jauna.

† **Jaunak esana.**

☉ Eskerrak Zuri, Jauna

† The Lord be with you

☉ **And with your spirit**

† A Reading from the Holy Gospel according to **N**

☉ **Glory to you, O Lord.**

† The Gospel of the Lord.

☉ **Praise to you, Lord Jesus Christ.**

Ebanjelioa San Lukasen Liburutik/ Lk 1:26-38

26 Handik sei hilabetera, Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, **27** birjina batengana; birjinak Maria zuen izena, eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen. **28** Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan zion: –Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin. **29** Hitz hauek entzutean, ikaratu egin zen Maria eta agur horrek zer esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari. **30** Aingeruak esan zion: –Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. **31** Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. **32** Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Daviden tronua emango dio Jainko Jaunak. **33** Israel

The angel Gabriel was sent from God to a town of Galilee called Nazareth, to a virgin betrothed to a man named Joseph, of the house of David, and the virgin’s name was Mary. And coming to her, he said, “Hail, full of grace! The Lord is with you.” But she was greatly troubled at what was said and pondered what sort of greeting this might be. Then the angel said to her, “Do not be afraid, Mary, for you have found favor with God. “Behold, you will conceive in your womb and bear a son, and you shall name him Jesus. He will be great and will be called Son of the Most High, and the Lord God will give him the throne of David his father, and he will rule over the house of Jacob forever, and of his kingdom there will be no end.”

herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango.

34 Mariak esan zion aingeruari: –Baina nola gerta daiteke hori, ez bainaiz gizon batekin bizi?

35 Aingeruak erantzun zion: –Espiritu Santua etorriko da zuregana eta Goi goikoaren indarrak hodeiak bezala estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. **36** Begira, Elisabet zure lehengusina ere haurdun gertatu da bere zaharrear eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; **37** Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik. **38** Orduan, esan zuen Mariak: –Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala. Eta aingeruak utzi egin zuen.

- Jaunak esana!**
- Eskerrak Zuri, Jauna!**

But Mary said to the angel, “How can this be, since I have no relations with a man?” And the angel said to her in reply, “The Holy Spirit will come upon you, and the power of the Most High will overshadow you. Therefore the child to be born will be called holy, the Son of God. And behold, Elizabeth, your relative, has also conceived a son in her old age, and this is the sixth month for her who was called barren; for nothing will be impossible for God.” Mary said, “Behold, I am the handmaid of the Lord. May it be done to me according to your word.” Then the angel departed from her.

- The Word of the Lord!**
- Praise to you, Lord Jesus Christ!**

HOMILIA-HOMILY SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH

APOSTOLUEN AITORMENA

- Sinisten dut, Sinisten dut!**
- † **Sinisten dut Jaungoiko Aita ahalguztiduna,** zeru-lurren egilea. Sinisten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaio zena; Pontzio Pilatoren menpean nekaldua; gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena; infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean hilen artetik piztu zena; zeruetara igo eta Aita Jaungoikoaren eskuin aldean jarrikik dagoena; handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.
- Sinisten dut, Sinisten dut!**
- Sinisten dut Espiritu Santua, Eliza santu katolikua, santuen elkartasuna, bekatuen barkamena, hildakoen piztuera eta betiko bizitza.
- Amen.**
- Sinisten dut, Sinisten dut!**

APOSTLES' CREED

- † **I believe in God, the Father almighty,**
- † **Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ,** his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father almighty; from there he will come to judge the living and the dead. I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting.
- Amen.**

JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL

+ Brothers and Sisters: In confidence that all things are possible with God we turn to the Father with our prayers:

1. For Pope Francis, our bishops, priests, and deacons, that they may continue to guide and lead us in the ways of holiness, **we pray to the Lord.**
2. For our world, that those in authority may safeguard the rights and dignity of every person through the laws they enact and the policies they develop, **we pray to the Lord.**
3. For all pregnant women, especially those experiencing difficulties, that they may find strength through prayers to our Blessed Mothe, **we pray to the Lord.**
4. For our own parish community, that we will accept the challenge to model our lives on the life of Christ, in response to his call to lead lives of holiness. **We pray to the Lord.**
5. For our departed brothers and sisters during the past year affected by the pandemic: May the merciful God give them eternal rest, and consolation to their families, **we pray to the Lord.**

+ Lord God, we know that it is You who saves us, and that our actions add nothing to our greatness. Take good care of your children. We ask you through Christ our Lord.

R/. Amen.

EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY

ESKAITZA ABESTIA/OFFERTORY SONG

<p>ESKERRIK ASKO, JAUNA bihotz-bihotzetik; Eskerrik asko Jauna, orain eta beti.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Eskerrik asko, Jauna, gugan zaudelako eta zure biziaz bizi garelako. 2. Zure antzera, Jauna, gaitezela ibili zure antzera, Jauna, on eginez beti. 	<p>Thanks so much, Lord, from the bottom of my heart; Thanks now and for evermore.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Thanks, Lord, because you inhabit in us, and because we live out from your very life. 2. That we may live like you, and like you we may go around doing good.
--	---

OPARI ESKAITZA-OFFERTORY

<p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ogi au, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ardo hau, mahatsoaren indarrak eta gizonaren lanak</p>	<p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the bread we offer you: fruit of the earth and work of human hands, it will become for us the bread of life.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the wine we offer you: fruit of the vine and work of human hands; it will become our spiritual drink.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p>
---	--

<p>sortua: hauxe egingo zaigu betiko zorionaren edari.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan.</p> <p>☉ Jainkoa goresteko eta gizona salbatzeko.</p>	<p>† Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours may be acceptable to God, the almighty Father.</p> <p>☉ May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.</p>
---	--

OPARIGAIEN GAINKO OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS

<p>† Jauna, Maria dohatsuaren sabel garbia bere indarrez bete zuen Espirituak. Santu egitzazu altara gainean ezarri ditugun opari hauek. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>R/. Amen.</p>	<p>† May the Holy Spirit, O Lord, sanctify these gifts laid upon your altar, just as he filled with his power the womb of the Blessed Virgin Mary. Through Christ our Lord.</p> <p>R/. Amen.</p>
--	--

EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

<p>† Jauna zuekin</p> <p>☉ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† Gora bihotzak.</p> <p>☉ Jaunagan dauzkagu.</p> <p>† Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.</p> <p>☉ Egoki da eta zuzen.</p> <p>† Egoki da, bai, eta zuzen non-nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko Ahalguztidun betiereko Horri, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>Hau bera dugu, profeta guziek aspalditik iragarritakoa, Ama Birjinak maitasun xamurrez sabelean ekarria, Joanek etortzekoa zela adierazia baita ere etorria zela aldarrikatua. Berari esker, pozez goaz Gabon misteriorako preparatzen, otoitzean aurkitu gaitzan eta gorespenetan alai. Horregatik, aingeru ta santu guztiekin batean, beti ta beti abesten dizugu goratarre hau:</p> <p>☉ Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak. Hosanna zeru-goienetan! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!</p>	<p>† The Lord be with you.</p> <p>☉ And with your spirit.</p> <p>† Lift up your hearts.</p> <p>☉ We lift them up to the Lord.</p> <p>† Let us give thanks to the Lord our God.</p> <p>☉ It is right and just.</p> <p>† It is truly right and just, our duty and our salvation, always and everywhere to give you thanks, Lord, holy Father, almighty and eternal God, through Christ our Lord.</p> <p>For all the oracles of the prophets foretold him, the Virgin Mother longed for him with love beyond all telling, John the Baptist sang of his coming and proclaimed his presence when he came. It is by his gift that already we rejoice at the mystery of his Nativity, so that he may find us watchful in prayer and exultant in his praise.</p> <p>And so, with Angels and Archangels, with Thrones and Dominions, and with all the hosts and Powers of heaven, we sing the hymn of your glory, as without end we acclaim:</p> <p>☉ Holy, Holy, Holy Lord God of hosts. Heaven and earth are full of your glory. Hosanna in the highest. Blessed is he who comes in the name of the Lord. Hosanna in the highest.</p>
--	--

EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II

† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz † eta odol guretzat egin daitezen.

† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA JAN GUZTIOK HONTATIK:
HAU NIRE GORPUTZA DA-TA, ZUENTZAT
EMANGO DENA**

† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA EDAN GUZTIOK
HONTATIK: HAU NIRE ODOLAREN KALIZA
DA-TA, ITUN BERRI ETA BETIKOAREN
ODOLA, ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT
BEKATUAK BARKATZEKO ISURIKO DENA.
EGIZUE AU NIRE OROIGARRI**

† **Hau da sinesmenaren misterioa.**

☉ Hil eta piztu zarela, Jauna: Zu berriz etorri arte, hau dugu, hau, berri ona!

† Horregatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratu, biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldu dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiekin batean.

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregana eraman duzun **I.** zure zerbitzaria. Heriotzean

† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body + and Blood of our Lord, Jesus Christ.

† At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT:
FOR THIS IS MY BODY
WHICH WILL BE GIVEN UP FOR YOU.**

† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU,
AND DRINK FROM IT:
FOR THIS IS THE CHALICE OF MY BLOOD,
THE BLOOD OF THE NEW
AND ETERNAL COVENANT,
WHICH WILL BE Poured OUT
FOR YOU AND FOR MANY
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.
DO THIS IN MEMORY OF ME.**

† **The mystery of faith:**

☉ We proclaim your Death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

zure Semearekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.

† Gogoan izan, Jauna pizteko itxaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, Jose Santua haren senarrarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean gorets zaitzagun, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

† **Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan**

☉ Amen.

† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.

† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, with blessed Joseph her spouse, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.

† Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.

☉ Amen.

JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

† **Salbatzaileak agindu eta erakutsiari Jarraituz, beldur gabe esan dezagun:**

† ☉ Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero; ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.

† **Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik; emaguzu bakea gure egunotan; zure errukiari esker bekatutik garbi bizi gaitzen eta estualdietan sendo, betiko zorionaren itxaropenean, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko den zai gaudela**

☉ Zurea duzu erregetza, zureak ospe eta indarra orain eta beti.

† **At the Savior's command and formed by divine teaching, we dare to say:**

† ☉ **Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.**

Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation, but deliver us from evil.

† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.

☉ **For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.**

PAKEAREN OHIKUNEA RITE OF THE PEACE

† **Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: "Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen." Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emaiozu Elizari bakea, eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.**

† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.

<p>⊙ Amen.</p> <p>† Jaunaren bakea beti zuekin.</p> <p>⊙ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† Emaiozue bakea elkarri.</p> <p>⊙ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.</p> <p>Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.</p> <p>Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaguzu bakea.</p> <p>† Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!</p> <p>⊙ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz.</p> <p>† Kristoren Gorputza.</p> <p>⊙ Amen.</p>	<p>⊙ Amen.</p> <p>† The peace of the Lord be with you always.</p> <p>⊙ And with your spirit.</p> <p>† Let us offer each other the sign of peace.</p> <p>⊙ Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.</p> <p>Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.</p> <p>Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.</p> <p>† Behold the Lamb of God; behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.</p> <p>⊙ Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.</p> <p>† The body of Christ.</p> <p>⊙ Amen.</p>
---	---

JAUNARTZE ABESTIA/COMMUNION SONG

<p>JESUS MAITEA ZAN</p> <p>Jesus amodioz bihotza gaindian Zein miragarri zen azken afarian Guretzat zelarik hiltzerat abian gerokotz ere zen gurekin nahian</p> <p>(REF) Adora dezagun menderen mendetan, Jesus Jainko Jauna sakramendu huntan.</p> <p>Apostolueri erraiten diote: «Ni gaur saldua naiz, bihar hilen naute. Aitarenganako denbora zait bethe, hona orain zenbat zaituztedan maite.»</p> <p>Ogia harturik erran du Jainkoak: “Hau da nire Gorputz, zuek jatekoa”. Orobat harturik ontzian ardoa: “Hau da nire Odol ixuritzekoa”.</p>	<p>JESUS WAS LOVING</p> <p>During Last Super Jesus loved us, He offered himself in bread and wine, He gave himself totally for us to death Cause love had his heart prisoner.</p> <p>(REF) Let us always adore Christ the Lord, Who is with us in this sacrament.</p> <p>With pain he told his disciples: “today I will be sold, tomorrow will die. My time to the Father is accomplished, Look now how much I love you.”</p> <p>Taking bread said the Lord, “This is my Body, for you to eat. Same taking the chalice with wine: This is my blood, shed for you.”</p>
---	--

JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION

<p>+ Betiko erospenaren agiriak harturik, arren eskatzen dizugu Jainko ahalguztiduna zenbat eta gertuago ikusi salbameneko jai hau, orduan eta gartsuago prestatu gaitzela zure Semearen jaioteguna ospatzeko. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.</p>	<p>+ Having received this pledge of eternal redemption, we pray, almighty God, that, as the feast day of our salvation draws ever nearer, so we may press forward all the more eagerly to the worthy celebration of the mystery of your Son's Nativity. Who lives and reigns for ever and ever. R/. Amen.</p>
---	---

BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING

<p>† Jauna zuekin. ☉ Eta zure espirituarekin. † Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak. ☉ Amen. † Zoazte Jaunaren bakean. ☉ Eskerrak Jainkoari.</p>	<p>† The Lord be with you. ☉ And with your spirit. † May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit. ☉ Amen. † Go forth, the Mass is ended. ☉ Thanks be to God.</p>
--	---

AZKEN ABESTIA-FINAL SONG-1.

<p>1. Aingeru batek Mariari Dio graziaz betea Jaungoikoaren semeari Emanen diozu sortzea.</p> <p>2. Jainkoaren nahi saindua Ni-baitan dadin egina Izan nadien amatua Bainan geldituz Birjina.</p> <p>3. Orduan Berbo Dibinoa Gorputz batez da beztitzen Oi, ontasun egiazkoa : Jauna gurekin egoiten.</p> <p>4. Otoitz zazu zure Semea Gure Ama amultsua Izan dezagun fagorea Ardiesteko zerua.</p> <p style="text-align: center;">Errepika</p> <p>Agur Maria, dena grazia</p>	<p>1. The angel to Mary You are full of grace The Son of God You will give birth.</p> <p>2. The Holy Will of God Be accomplished in me So I may be loved But remaining Virgin.</p> <p>3. Then the Divine Workd Is dressed with flesh What a marvelous truth That God rests with us.</p> <p>4. Intercede before your Son Loving Mother, That we may have the grace Of eternal heaven.</p> <p style="text-align: center;">Refrain</p> <p>Hail Mary, full of grace,</p>
--	--

Miresgarria, zoin ederra
Gure bihotza hobenatarik
Garbi garbia, zuk begira

Miraculous, wonderful,
From our heart
Cleanse as you look on us.

Egun On bat opa dizuet!
🙏 wish you a wonderful day!





ABENDUKO LAUGARREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

2 Samuel liburutik 7:1-5,8b-12,14a,16

1 David errege bere etxean bizitzen jarri zen. Jaunak inguruetakoa etsaien aldetik lasaitasuna eman zionean, **2** erregeak Natan profetari erran zion:—Hara, zedrozko etxean bizi naiz; Jainkoaren kutxa, aldiz, oihal-etxolan dago. **3** Natanek ihardetsi zion erregeari:—Zoazi, egizu gogoan duzuna, zeurekin baituzu Jauna. **4** Gau hartan, ordea, Jaunak Natani hitz egin zion: **5** —Zoazi ene zerbitzari Davidi erraitera: «Hunela mintzo da Jauna: Etxea eraiki behar ote dautazu, ni han bizi nadin? **8b** Nik hartu zaitut larreetarik, ardien gibeletik, Israel ene herriaren buruzagi izaiteko. **9** Zeurekin ukan nauzu ibili ziren toki guzietan. Suntsitu ditut aitzinean jarri zaizkizun etsai guziak. Lurreko handikiena bezain izen handia emanen dautut. **10** Bizitokia emanen diot Israel ene herriari; han finkatuko dut eta han egonen da. Hemendik aitzina ez da ikaratuko; gaizkile horiek ez dute gehiago zapatuko. **11** Israel ene herriari buruzagiak eman niozkanetik, lasaitasuna emanen dautut zure etsai guzien aldetik. Ondoregoa emanen dautzula jakinarazten dautu Jaunak. **12** Zure egunak bete ondoan, zeure arbasoekin etzanen zirenean, zure ondoko bat ezarriko dut, zureganik sortua, eta sendotuko dut haren erregegoa. **14a** Ni ukanen nau aita, eta hura ukanen dut seme. **16** Zure etxeak eta zure erregegoak betiko iraunen dute zure ondotik, eta zure errege-alkia sendoa izanen da betiko».

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna.

Salmoa 89 (88):2-3, 4-5, 27, 29

Leloa: Jauna, zure maitasun-egintzak beti ditut kantatuko.

Jauna, zure maitasun-egintzak beti ditut kantatuko,
zure leialtasuna gizaldiz gizaldi gorai patuko.

Bai, zure maitasunak moldatua da zerua,
zerua bezain tinko ezarria da zure leialtasuna.

«Neure hautetsiarekin elkargo egin nuen,
David neure zerbitzariari zin eginez:
Betiko ezarriko dut zure errege-ondoregoa,
sendo sekulako zure tronua»..

Harek erranen daut: Zu zaitut aita,
ene Jainko, ene harroka salbatzailea!
Leial izanen nitzaio betiko,
harekin dutan elkargoa sendo atxikiko.

Bigarren irakurgaia

Erromatarren epixtolatik 16:25-27

25 Gorets dezagun Jainkoa! Harek fedean azkartzen ahal zaituzte, nik oihukatzen dutan berrionaren, Jesu Kristori buruz emaiten dutan mezuaren arabera. Mezu horren bidez, aspalditik ixilean zaukan misterioa agertu du Jainkoak. **26** Misterio hori orai argitan eman da profeten idatziek dioten bezala, eta, Jainko betierekoak manaturik, herri guziera adiarazi zaiote, Jainkoaren baitan sinetsi eta hari obedi diezoten. **27** Zuhur bakarra den Jainkoari aintza betiere Jesu Kristoren bitartez! Amen.

Jaunak errana!
Eskerrak Zuri Jauna.

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

Huna Jaunaren neskatoa, Bai, egin bekit zure hitzaren arabera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa Jondoni Luken liburutik 1, 26-38

26 Seigarren hilabetea, Jainkoak Gabriel aingerua Nazaret deitu Galileako herri baterat igorri zuen, **27** birjina batenganat; hau ezkontzaz emana zen Daviden ondokoetako Josep deitu gizon bati; eta birjinaren izena Maria. **28** Harenganat sarturik, aingeruak erran zion:–Bozkaria zaite, Jainkoak atsegin zaituena! Jauna zurekin da. **29** Hori entzutearekin, durduzatu zen Maria eta agur hori zer zitekeen ari zen bere baitan. **30** Aingeruak erran zion:–Ez beldur izan, Maria! Jainkoak atsegin zaitu. **31** Hara, haur-beharretan gertatuko zira, semea ukanen duzu eta Jesus emanen diozu izena. **32** Handia izanen da, Goi-goikoaren seme deituko dute, eta bere aita Daviden tronua emanen dio Jainko Jaunak. **33** Israel herriko errege izanen da betiko, eta haren erregetzak ez du azkenik ukanen. **34** Mariak aingeruari erran zion:–Bainan nola gerta daiteke hori, ez bainaiz gizon batekin bizi? **35** Aingeruak ihardetsi:–Izpiritu Saindua zureganat etorriko da, Goi-goikoaren indarrak estaliko zaitu hodeiak bezala; horrengatik, sortuko den haurra saindu izanen da, Jainkoaren seme deitua. **36** Eta huna nun Elisabet zure ahaidea ere seme baten beharretan den bere xaharrean, eta agorra omen zena seigarren hilabetea da; **37** ezin eginik ez baita Jainkoarentzat. **38** Mariak erran zuen:–Huna Jaunaren neskatoa. Gerta bekit zuk erran bezala. Eta aingeruak utzi zuen.

Jaunak errana!
Eskerrak Zuri Jauna.